



Eguberria debekatuta



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Londres, 1642ko abenduaren 19a. Ingalaterrako Parlamentuak ordenantza bat onartu zuen, herritarrei gomendio hau luzatuz: “Eguberrietan apaltasun irmoenaz joka dezaten, gure eta gure arbasoen bekatuak gogoan izanda, Kristoren oroimenaren aitzakian jai hauetan Jainkoa erabat ahaztuta zutelako, eta haragikeriari eta gehiegikeria sentualei askatasuna eman zietelako”.

Karlos I.a erregea ez zen horrelako neurrien aldekoa, baina parlamentuan puritanoak ziren nagusi. Gainera, urte horretan bertan Westminsterreko Batzarrean bildu ziren lehenengoz hainbat teologo, 1534an sortutako eliza anglikanoaren norabidea zehazteko. Hor ere katolizismoaren gehiegikeriak baztertzen zituzten eta luxurik gabeko aszetismoa bultzatzen zuten puritanoak ziren nagusi.

Hurrengo urtean, 1643an, ez zuten soilik ordenantza berretsi, gogortu baidiz: Eguberriak, Mendekoste eta Pazko-ko ospakizunak legez galarazi zituzten. Debekuak 1660. urtera bitartean iraungo zuen, Karlos I.aren seme Karlos II.ak koroa jantzi zuen arte. Eta, gainera, debekua ez zen Ingalaterrako Erresumara mugatuko: 1657an, Atlantikoaz bestaldean, Massachusettseko puritanoek ere Eguberria debekatzeari lortu zuten, jaia ospatzeko atrebentzia zutenei bost txe-



JOHN ROGERS HERBERT

WESTMINSTERREKO BATZARRA 1644AN. BERTAKO TEOLOGO PURITANOEK ETA INGALATERRAKO PARLAMENTUAK BULTZATU ZUTEN EGUBERRIAREN DEBEKUA.

lineko isuna ezarritz.

Ingalaterran, neurriak liskarrak eragin zituen. Gogorrenak 1647. urtean gertatu ziren Londresen, Ipswichen, Norwichen eta, bereziki, Canterburyn. Herritar askok Eguberri eguna publikoki ospatu zuten eta abenduaren 25ean ateak zabaldu zituzten saltokiak eraso zituzten. Ingalaterra erregearen aldekoen eta Oliver Cromwell buru zuten indar parlamentarioen arteko gerra zibi-

lean murgilduta zegoen, eta “Eguberria salbatzea” arma politiko bilakatu zen, Karlos I.aren aldeko kausari zale asko eta bultzada handia eman zion tresna, lehen urteetan behintzat.

1649an amaitu ziren liskarrak, erregezaleak mende hartu zituztenean eta Karlos I.a, urtarrilaren 30ean lepoa moztuta hil zutenean. Hurrengo hamarkadan ez zuten Eguberria ospatuko, publikoki behintzat. ●



GIRAVOLT

Giravolt: ondarea 3Dn

Kataluniako Generalitateak Giravolt izeneko bertako kultur ondarearen 3D digitalizazio programa aurkeztu du. Eraikinak, monumentuak, aztarnategi arkeologikoak, margolanak, erliebeak eta bestelako objektuak 3D teknologiarekin eskaneatuta, eredu birtualak sortzen ari dira eta, hala, historian giltzarriak diren elementuak

errazago aztertu, ulertu eta hedatu daitezke.

Besteak beste, Molleteko menhirra, Tarragonako erromatar antzokia, Sant Climent de Taüll eliza erromanikoa eta ehunka objektu eskaneatu dituzte dagoeneko. Eta horietatik 50 inguru doan kontsulta daitezke Giravoltek Sketchfab plataforman daukan profilean sartuta. ●